

Egiptoren erraietan, izaki beldurgarri
bat esnatu berri da...
Enda momia!
Eta oso gose da!
Lortuko ote du Endak
bere apeta baretzea?



Bilduma berean:
Kulero zulatuen mamua

ISBN: 978-84-19607-44-7 www.nubeocho.com



MOMIA GOSETIA

JOSÉ CARLOS ANDRÉS

GÓMEZ

MOMIA GOSETIA

José Carlos Andrés

Gómez





*Juanentzat, nire Juanitorentzat: Juanjuanito
Mila esker zure irribarreengatik, oparirik onena dira.*

José Carlos Andrés

Mundu osoan nire momia gogokoena den Sergiori.

Gómez



Momia gosetia

Somos8 bilduma

© testuarena: José Carlos Andrés, 2023

© irudiena: Gómez, 2023

© argitalpenarena: NubeOcho, 2023

© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2023

www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *Una momia muy hambrienta*

Lehen argitaraldia: Urria, 2023

ISBN: 978-84-19607-44-7

Legezko Gordailua: M-19661-2023


Txinan inprimatua nazioarteko lanbide-arauak errespetatuz.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa.

MOMIA GOSETIA

José Carlos Andrés

Gómez





Egipton, enegarren urtean...

Ez dut urtea gogoratzen, baina ziur nago istorio hau
EGIPTON gertatu zela, Keops piramidean...

Ala Kefren-enean izan zen?

Agian Mizerinorenean?

Ez dut gogoan zein piramidetan izan zen,
baina garrantzitsuena zera da...

MOMIA BAT IRATZARRI EGIN ZELA!




—Nolako **AMORRUAAA!** Zer egin behar dut nik orain esna?
Gutxienez beste ehun urtez egin behar nuen lo. Eta orain...



GOSE NAIZ!



Momiak **ZER ORDU ZEN** jakin nahi zuen.
Eguzki-erlojuari egin zion so...
Baina piramide barruan ez zegoen eguzkirik.



Leihotik begiratu nahi zuen
eguna edo gaua ote zen jakiteko.
Baina piramideak
EZ ZEUKAN LEIHORIK.



—**HAU NAHASPILA!** Ez dakit gosaldu,
bazkaldu ala afaldu egin behar ote dudan!



—Zera baino goseago naiz... Zera...

MOMIA GOSETI BAT BAINO GOSEAGO NAAAIZ!!!

Turista guztiek korrika egin zuten ihes, eta,
konturatzerako, ez zen inor geratzen aretoan.
Neskatila bat izan ezik...



—GOOSE NAAAIZ!

—JAN egingo al nauzu? —galdetu zuen neskatilak.

—Noski ezeeetz!!! Zer uste duzu, monstruo bat naizela ala?

Gertatzen zaidana sinplea da, denbora gehiegi daramat jan gabeeee.

Zera baino goseago naiz... Zera...

MOMIA GOSETI BAT BAINO GOSEAGO NAAAIZ!!!

